

JARRAIBIDEAK:

Har ezazu A aukera, B aukera edo C aukera, eta osorik egin.  
 Galdera bakoitzean duzu adierazia gehienezko puntuazioa.

**A AUKERA: PLATON**

- Baina inork, zentzurik izanez gero, gogoan du begiek nahasiki bi asaldura direla medio ikus dezaketela: bata, argitatik ilunpera pasatzean; bestea, ilunpetik argitara igarotzean. Arimarekin gertatzen dena ere hauxe dela kontuan hartzean, arima asalaturik edo zerbaitetara begiratzeko gai ez dela ikusten badu, barre egin beharrean, berea bi kasuotako zein den aztertu beharko du: edo *bizitza argitsu batetik ateratzean ohitura-ezagatik nahasiki ikusten duen* edo, ezjakintasun handiago batetik argitsuena den batera etortzean, dirdira ote den lausotzen duena. Honela, lehenbiziko kasuan, gertatzen zaionagatik eta iritsi den bizimodura iristeagatik zoriontsu sentituko da; beste kasuan, berriz, bere buruaz errukituko da eta hartaz barre egin nahi badu, bere barrea argitatik jaisten den arimaren lepotik egitea bezain zentzugabea ez da izanen.

- Diozun hori arrazoizkoa da.

- Hortaz, pentsa dezagun, hau egia baldin bada, heziketa ez dela batzuek esaten duten bezalakoa. Horiek diote ariman zientziarik ez denean beraiek jartzen dutela, begi itsuetan ikusmena jarriko litzatekeen bezalaxe.

- Horixe esaten dute, bai.

- Hara bada, argumentu honek erakusten du *norberaren ariman badela ikasteko ahalmena eta horretarako organoa ere*. Era berean, gorputz osoa biratzen ez bada begiak argitara itzuli eta ilunpeak utzi ezin dituen bezalaxe, hasiera duen hartatik arima osoarekin itzuli behar duela izan badena eta den haren zerarik argitsuena, *Ongia* deitzen duguna, begiztatu ahal izateko arima gai izan arte. Ez da horrela?

- Bai.

- Ondorioz, heziketa, arimaren organo hau itzulia izan daitekeen erarik erraz eta eraginkorrean itzultzeko artea litzateke, baina ez ikusmena emanen balitzaio bezala, bai baitauka, desegokiro biratu badu eta behar duen lekura begiratzen ez badu, zuzenketa ahalbidetzeko moduan baizik (Platon: *Errepublik*).

1. Laburpena eta definizioak.	(Guztira: 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe.	(0,75 puntu)
b) Zer esan nahi du Platonek honako hau esatean: <i>bizitza argitsu batetik ateratzean, ohitura-ezagatik nahasiki ikusten duela?</i>	(0,75 puntu)
c) Zer esan nahi du adierazpen honek: <i>norberaren ariman badela ikasteko ahalmena eta horretarako organoa ere?</i>	(0,75 puntu)
d) Zer da <i>Ongia</i> Platonen arabera?	(0,75 puntu)
2. Garatu gai hau: harpearen mitoan oinarrituz, azaldu nolakoa izan behar duen hizkuntzak Platonen arabera.	(Guztira: 3 puntu)
3. Testuingurua eta alderaketa:	(Guztira: 3 puntu)
a) Autorearen testuinguru historiko, kultural eta filosofikoa	(puntu 1)
b) Garatu autore honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo bat(zu)ek horri buruz esan du(t)enarekin. (Funtsezkoa da autore batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe, eta aurreko galderetan esandakoa errepikatu gabe)	(2 puntu)

OHARRA: Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.

**JARRAIBIDEAK:**

Har ezazu A aukera, B aukera edo C aukera, eta osorik egin.  
 Galdera bakoitzean duzu adierazia gehienezko puntuazioa.

**B AUKERA: DESCARTES**

Gorago esan den bezalaxe, aspalditik igarri nuen ohiturei dagokienez, *zalantza gabekoak bailiran jarraitu behar ditugula batzuetan oso zalantzagarriak direla badakigun aburuak*; baina nik garai horretan egia bilatzen bakarrik jardun nahi nuen, eta horregatik pentsatu nuen beharrezkoa zela guztiz aurkakoa egin eta zalantzarik txikiena sor ziezadakeen oro erabat faltsu bezala errefusatzea, hori egin eta gero ea nire sinismenean zeharo zalantza gabekoa zen zerbait gelditzen zen ikusteko. Horrela, *gure sentimenez batzuetan engainatzen gaituztela*-eta, suposatu nahi izan nuen ez zegoela ezer horien bidez irudikatzen dugunaren modukoa zena. Eta arrazonatzean hutsak eta *paralogismoak* egiten dituzten gizakiak badaudenez (eta hutsak egin baita geometriaren gairik bakunenetan ere), pentsatu nuen neuk ere beste edozeinek beste huts egin nezakeela, eta aurretik frogapentzat nituen arrazoi guztiak faltsutzat jo eta baztertu nituen. Eta azkenik, esna gaudela dauzkagun pentsamendu horiek guztiak lotan gaudela ere etor dakizkigukeela kontutan hartuz (hauen artean egia den bakarra ere ez dagoelarik) honako hau irudikatzea erabaki nuen: nire adimenean noizbait sartutako gauza guztiak ez zirela nire ametsetako lilurak baino gehiago. Baina, berehalaxe ohartu nintzen, dena faltsua zela pentsatu nahi nuen bitartean, nik hori pentsatzen zuenak alegia, derrigorrean zerbait izan behar nuela. Eta ohartu nintzen honako egia hau, alegia, *nik pentsatzen dut, beraz, banaiz*, hain sendoa eta segurua zela, non ezeptikoen aieru bitxienean ere ezingo zuketen ahuldu, eta hau kontutan izanik bilatzen niharduen filosofiaren lehen hastapentzat jo nezakeela kezkarik gabe iritzi nion. *Deskartes: Metodoari buruzko diskurtsoa*).

1. Laburpena eta definizioak	(Guztira: 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe.	(0,75 puntu)
b) Azaldu esaldi hau: <i>zalantza gabekoak bailiran jarraitu behar ditugula batzuetan oso zalantzagarriak direla badakigun aburuak</i> .	(0,75 puntu)
c) Zer esan nahi du esaldi honek: <i>sentimenez batzuetan engainatzen gaituzte?</i>	(0,75 puntu)
d) Zer da <i>paralogismo</i> bat?	(0,75 puntu)
2. Garatu gai hau: Zalantza metodikoa eta zalantzaren emaitza: <i>"nik pentsatzen dut, beraz, banaiz"</i> kartesiarra.	(Guztira: 3 puntu)
3. Testuingurua eta alderaketa.	(Guztira: 3 puntu)
a) Autorearen testuinguru historiko, kultural eta filosofikoa.	(puntu 1)
b) Garatu autore honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo batzuek horri buruz esan dutenarekin. (Funtsezkoa da egile batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe, eta aurreko galderetan esandakoa errepikatu gabe)	(2 puntu)

OHARRA: Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gaitantolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.

**UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK**  
**FILOSOFIAKO AZTERKETA**  
**2008/2009 IKASTURTEA**

**JARRAIBIDEAK:**

Har ezazu A aukera, B aukera edo C aukera, eta osorik egin.  
Galdera bakoitzean duzu adierazia gehienezko puntuazioa.

**C AUKERA: HUME**

Gauzak arreta handiagoz aztertu ondoren, ohartzen naiz gehiegi fidatu naizela lehenengo itxuraz eta hautemate *bakun eta konplexuen* arteko bereizketaz baliatu behar naizela ondorio orokor hau mugatzeko: *gure ideia eta inpresioak oro elkarren antzekoak direla*. Orain jabetzen naiz gure ideia konplexu askok inoiz ez zutela izan beraiei zegokien inpresiorik, eta ideiek ez dituztela inoiz zehaztasunez kopiatzen gure inpresio konplexu asko. Irudika dezaket *Jerusalem Berria* bezalako hiri bat, urrezko zoladurekin eta errubizko hormekin, halakorik inoiz ikusi ez badut ere. *Paris* ikusi dut, baina esan nezake, hala ere, izan dezakedala hiri horri buruzko ideia bat, bere kale eta eraikin guztiak neurri benetako eta zuzenekin ezin hobeki irudikatuko lituzkeena?

Oro har gure inpresio eta ideia *konplexuek* elkarren antz handia badute ere, guztiarekin, jabetzen naiz ez dela unibertsalki benetakoa ideia konplexuak inpresioen kopia zehatzak direla dioten araua. Azter dezakegu, jarraian, zer gertatzen den honi dagokionez gure hautemate *bakunekin*. Egiteko gauza naizen azterketa xehatuaren ondoren, esatera ausartzen naiz kasu honetan araua salbuespenik gabe betetzen dela, eta ideia bakun orok duela bere antzekoa den inpresio bakun bat, inpresio bakun orok berari dagokion ideia bat duen bezala (Hume: *Giza izaerari buruzko tratatua*).

1. Laburpena eta definizioak.	(Guztira: 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe.	(0,75 puntu)
b) Zer dira hautemate <i>bakunak</i> ?	(0,75 puntu)
c) Zer dira hautemate <i>konplexuak</i> ?	(0,75 puntu)
d) Zer esan nahi du esaldi honek: <i>gure ideia eta inpresioak oro elkarren antzekoak direla</i> ?	(0,75 puntu)
2. Garatu gai hau: Ezagutza Humeren arabera (inpresioak, ideiak, ezagutza-motak).	(Guztira: 3 puntu)
3. Testuingurua eta alderaketa	(Guztira: 3 puntu)
a) Autorearen testuinguru historiko, kultural eta filosofikoa.	(puntu 1)
b) Garatu autore honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo batzuek horri buruz esan dutenarekin. (Funtsezkoa da autore batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe, eta aurreko galderetan esandakoa errepikatu gabe)	(2 puntu)

**OHARRA:** Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.